

HIZKUNTZ EDUKI BERRIAK NOLA AURKEZTU KLASEAN

Kanadako murgil-programak
Euskalduntzearen 1-8 urratsak:
edukia/ebaluazioa
Mario Rinvoluceri-rekin elkarrizketan

V URTEA
13. zenb.
1987 URTARRILA-APIRILA
525 pzta.

euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria

ZUTABE

Zuzendaritza: Iñaki ARANBERRI
Pello ESNAL
Imanol IRIZAR
Gurutz LARRAÑAGA
Boni URKIZU


Koordinatzailea: Joanba BERGARA

Idazkaritza-Harpidetzak: HABE
ZUTABE aldizkaria
Reina Regente 2 - 1. a
20003 Donostia - Tel.: (943) 291811

1987.erako prezioak: Ale bakoitza: 525 pzta.
Harpidetza: 1.375 pzta. edo 105 libera

Uziat

ZUTABE



AURKIBIDEA

GAI MONOGRAFIKOA

- Hizkuntz eduki berriak nola aurkeztu klasean (Jill de Gruchy/Jim Rudy) 9

ESPERIENTZIAK

- Abestia «B» ereduko 6. OHOn (Patxi Ezkiaka) 51
- Euskal aditza lantzeko joko berria (Pello Esnal) 54

ITZULPENAK ETA LANKIDETZAK

- Diktaketa interaktiboak (Mario Rinvolucrí) 59
- Entzute-ariketa benetazkoak (Don Porter/Jon Roberts) 63
- Kanadako murgil-programak (Jose Ignacio Hualde) 75
- «Aurten bai»: Alfabetatze kanpaina Bizkaian (HABEren Bizkaiko Ikuska-tzailtza) 85
- Euskalduntzearen lehen zortzi urratsetako edukia eta ebaluaketarako oinarritzko erizpideak (Pello Esnal) 95

ELKARRIZKETA

- Mario Rinvolucrí 121

GURE MUNDUTXOA

- Irakasleen prestakuntzarako ikastaroa (Gurutz Larrañaga) 129
- Euskara-irakasleentzat ikastaroa Arkauteko Akademian (Pello Esnal) 131
- Primeros encuentros de medios audiovisuales y educación en Euskadi (Manuel Benito) 131
- Lehenengo ikastaroa Euskadiko aleman-irakasleen prestakuntzarako (Begoña Martínez) 132

LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK

• Liburuak

- ALZO, FR. D. J.: Estudio sobre el euskera hablado (P. Esnal) 137
- ELHUYAR: Laneko euskara: Zientzia eta Teknika (J. Egaña) 138
- LEWIS, M.; HILL, J.: Practical Techniques in Language Teaching (I. Irizar) 140
- McKAY, S. L.: Teaching grammar: form, function and technique (J. Bergara) 140
- UNDERWOOD, J. H.: Linguistics, Computers and the Language Teacher (J. Perales) 141
- WHITE, R. V.: The English Teacher's Handbook (L. Lekuona) 142
- Liburu-zerrenda 143

• Aldizkariak

- «Linguistics Abstracts», «Contents Pages in Education», «LLBA. Lin-guistics and Language Behavior Abstracts», «Boletín de Sumarios», «Bulletin Signalétique», «Bulletin Bibliographique du Credif» (I. Irizar) 147
- Aldizkari-zerrenda 148

SARRERA

Kurtsua amaitzear dagoen honetan, ilusio handiz egindako lanaren fruituak hasiak dira zoritzen jadanik eta ondo merezitako oporrak hartzeko irrikitzen egongo gara denok ezbairik gabe. Atzean gelditu dira pozak eta penak, arrakasak eta perrotak, denetarik bait dago euskalgintzan eta alfabetagintzan. Orain, naturaren eklosio berriarekin arnasbideak haizeberritu eta buruari atsedena emateko parada izango dugu. Eskerrak! Bestela... jai genuke. Oporraldi zorionsua opa dizuegu guztiei; iraila aldean, ZUTABE berri bat kaleratzen dugunean, indarberritua eta ilusioz beterik aurki zaitezten.

Beste ZUTABE bat duzu zeure aurrean. Itxurazko lantresna eskaintzen saiatzen gara eta oraingoan ere onurazkoa gertatuko zaizulakoan gaude.

«Eduki berriak nola aurkeztu?» Horra hor euskara-irakasleak maiz askotan egiten duen galdera. Horregatik, hain zuzen, hartu dugu arlo hori aztergaitzat ale honetako monografian. Zer eta nola aurkeztu?; nola nabarmendu «elementu berriak»?; zein baliabide, metodo eta teknika ditugu eskuartean eduki berrien aurkezpena planifikatu eta burutu ahal izateko? Monografiak galdera hauei erantzuteko asmoz aurkezpen-unea ikaste prozesuaren marko zabalagoan kokatzen du, irakasleak bere erabakiak hartu aurretik zein faktore azertu beharko lituzkeen aipatuz.

«Esperientziak» sailean bi artikulua ditugu. Lehenengoan Patxi Ezkiagak abestiaren rolaz dihardu. Bigarrenak lagungarri gerta daitekeelakoan joko berri bat azaldu eta nola erabili erakusten du.

«Itzulpenak eta Lankidetzak» sailean Rinvolucrí-k ohizko diktaketaren barruan ikasleari bere ekarkin pertsonala ahalbideratuko liokeen hurbilketa interaktiboa iradokitzen du. «Entzute-ariketa benetazkoak» artikuluan hizkuntz irakaskuntzan benetazko hizkeraren ezaugarriak sartzeko premia azpimarratzen du. Egileek diotenez, hizkuntz klasean errealitatean entzuten diren hizkerak eta entzutezko mezuen aurrean ematen diren jokaerak isladatu beharko lirateke. Jose Ignacio Hualdek, bere aldetik, Kanadako eskola eta unibertsitateetan egindako saiaketa interesgarri batzu —hizkuntz murgil-programak deritzenak— aurkeztu eta aztertzen ditu, aldi berean hango esperientzietatik atera daitezkeen ondorioak ikertu nahirik. «Aurten bai» artikulua 86/87 ikasturtean HABE, Udal-Euskaltegi batzu eta Bizkaiko Foru-Aldundiaren artean buruturiko alfabetatze kanpainaren berri ematen digu. Azkenik, sail honetako azken artikulua euskalduntzearen lehen zortzi urratsetako edukia eta ebaluaketarako oinarritzko erizpideak aurkeztu ditu.

«Elkarrietzak» sailean Mario Rinvolucrí-rengana hurbiltzen gara, irakasle-prestatzaile, eragin sakoneko materialgile ezkonbentzional honekin hizketatzeko parada ematen zaigularik.

Guzti horretaz aparte, «Gure mundutxoa» eta «Liburuak eta aldizkariak» sailak dituzu. Zure gustokoa gerta dadila. Guk, geure aldetik, zure ihardunean onuragarri gertatu zaizun guztia —ariketak, materialak, ideiak, burutazio emankorrak— ZUTABEn hitz gutxitan azaltzera animatzen zaitugu.